



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura

ARTEEN ETA KULTURA-INDUSTRIEN 2017KO ESTATISTIKAREN AGENTEEN PROFILAK

2019ko azaroa



Aurkibidea

Aurkezpena	3
I. Agenteen profilen analisisa	4
1.1. Arte eszenikoen ekoizleak	4
1.2. Arte eszenikoen programatzaileak	6
1.3. Argitaletxeak	8
1.4. Liburu-dendak	9
1.5. Musika-programatzaileak	11
1.6. Industria diskografikoa eta disko-saltokiak	14
1.7. Ikusizko arteen erakusketa-guneak	15
1.8. Ikus-entzunezkoen ekoizleak	17
II. Taulen eranskina	18
2.1. Arte eszenikoen ekoizleak	19
2.2. Arte eszenikoen programatzaileak	20
2.3. Argitaletxeak	22
2.4. Liburu-dendak	23
2.5. Musika-programatzaileak	25
2.6. Disko-saltokiak	28
2.7. Ikusizko arteen erakusketa-guneak	29
2.8. Ikus-entzunezkoen ekoizleak	30



Aurkezpena

Arteen eta Kultura-industrien 2017ko Estatistikaren emaitzek hainbat analisi-maila egiteko aukera ematen dute. Horretarako, kontuan hartu da EAEko kultura-esparruetan diharduten 673 agenteri buruzko informazioa. Hala, sektoreko txostenek ahalik eta modu zehatzenean jasotzen dituzte sektore bakoitzari buruzko datuak. Bestalde, Ikuspegiak txostenak interpretazioa egiteko aukera ematen digu agente guztien ustiapenetatik abiatuta, sektore guztiaren gaineko ikuspegia ardatz hartuta.

Txosten honen helburua agenteen profilak azaltzea da, diru-sarreraren mailaren arabera banatuta. Txostenak bi zati ditu. Lehenengo zatian, 2017. urtean profil bakoitzaren bereizgarrien analisia egiten da. Horretarako, informazio grafikoa erabiltzen da, datuak errazago irakur daitezzen.

Bigarren zatian, berriz, 2013-2017 aldiko bilakaera azaltzen duten taulen eranskina jaso da, serie historikoen xehetasunak aurkezteko asmoz.



I. AGENTEEN PROFILEN ANALISIA

1.1. Arte eszenikoen ekoizleak

2017an, arte eszenikoen 92 konpainia sartu dira estatistikan: 78 antzerkiaren esparrukoak eta 14 dantzaren esparrukoak.


Arte eszenikoen ekoizleen datuak orokorrean aztertuz gero, ikusten da agenteen banaketa ekoizpenen banaketaren antzekoa dela; hau da, 100.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten agente ekoizleak dira sektorean nagusi (% 67,4); eta sektorea, gehien bat, konpainia txikiek osatzen dute, datu horrek berresten duenez. Aldi berean, ekoizpen gehien egiten dituzten agenteak ere badira (% 67,3).

Dena dela, diru-sarreraren edo langileen pisuari begiratzen bazaio, banaketa bestelakoa da. Diru-sarrera gehien dituzten hamar enpresek (sektoreko agente guztien % 10,9 dira) diru-sarrera guztien % 59,9 biltzen dute; horrenbestez, arte eszenikoetako 92 konpainietatik hamarrek biltzen dituzte sektoreko diru-sarreraren erdiak baino gehiago. Aldiz, 100.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzten arte eszenikoetako 62 konpainiek ez dute sektoreko diru-sarrera guztien % 12,7 baino biltzen.

Langileen banaketa ez da diru-sarrerena bezain desparekoa; dena dela, ez dio erantzuten agenteen banaketaren logika berari. Konpainia txikienek sektoreko hamar langiletik lauri ematen diote enplegua, eta konpainia handienek, berriz, hamarretik hiruri. Analisia hedatzen bada, agerian geratzen da 250.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten konpainiek kontratatzen dituztela sektoreko langileen erdiak baino gehiago. Hala ere, kontratazioaren batez bestekoak konpainiaren tamainaren arabera aztertzen badira, diru-sarrera handienak dituzten hamar enpresek batez beste 8,1 langile kontratatzen dituztela nabarmendu daiteke (datu hori 2015eko 7,6 langileena baino apur bat handiagoa da), eta diru-sarrera gutxien dituzten 62 konpainiek, berriz, 1,7 langile agente bakoitzeko ([eranskineko 15. irudia](#)).



1. irudia. Arte eszenikoaren ekoizleak, diru-sarreraren, guztizko diru-sarreraren ehunekoaren, langileen (urteko lanaldi osoko langileen baliokideak) eta ekoizpenen arabera. 2017.





1.2. Arte eszenikoetako programatzaileak


2015ean, arte eszenikoetako 129 programatzaile aztertu ziren guztira: % 71,3 aretoak ziren (92 agente), eta % 28,7, berriz, jaialdiak (37 agente).

Aurreko edizioetan ikusten zenez, gutxi gorabehera aretoen erdiak (% 52,2) 100.000 eurotik beherako diru sarrerak dituzte, eta ez dituzte sektoreko diru-sarreraren % 9,5 baino biltzen. Sektoreko diru-sarreraren erdiak baino gehiago (% 52,6) bost areto programatzaileetan metatzen dira (% 5,4, milioi eurotik gorako diru-sarrerak dituzten areto programatzaileak).

Ikusleei dagokienez, nabarmendu daiteke bost areto handi horiek biltzen dutela ikusle kopuru handiena (% 36,2); bestaldetik, 100.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten 48 areto programatzaileek ikusleen % 21,6 erakartzen dute.

Bilakaeraren ikuspuntutik eta aretoen ikusleen arabera profilarik jarraikiz, 2015ean 10.000 eta 30.000 ikusle artean biltzen dituzten aretoen hazkundera nabarmendu zen; izan ere, 2013ko zifra bikoiztu zuten. 2017an, 2013ko datuetara itzuli dira zifrak, eta nabarmen hazi dira 5.000 eta 10.000 ikusle artean erakartzen dituzten aretoak (eranskineko [18. irudia](#)).


2. irudia. Arte eszenikoak programatzen dituzten aretoak, diru-sarreraren, guztizko diru-sarreraren ehunekoaren eta ikusleen arabera. 2017.





Jaialdiek azken urteetako joerari eutsi diote; horrenbestez, apur bat hazi dira 250.000 eurotik gorako diru-sarrerak dituztenak, eta murriztu, aldiz, 100.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituztenak. Programatutako 37 jaialdietatik hogeik (% 54,1) 100.000 eurotik beherako diru-sarrerak izan ditu, eta guztizko diru-sarreraren % 7,5 bildu du. Hala ere, diru-sarrera handienak dituzten agenteen % 21,6ak (250.000 eurotik gorako diru-sarrerak dituzten 8 jaialdiak, zifra absolutuetan) diru-sarrera guztien % 80,3 bildu du (ikus bilakaeraren datuak eranskineko [19. irudian](#)).

3. irudia. Arte eszenikoen jaialdiak, diru-sarrera tarteen eta guztizko diru-sarreraren ehunekoaren arabera. 2017.






1.3. Argitaletxeak

2017an ere handitu da 100.000 eurotik beherako diru-sarrerak izan dituzten argitaletxeen pisua eta, hortaz, 2013an eta 2015ean sektoreak bizi dituen zailtasunei buruz azpimarratutakoa berretsi da. Hala ere, langileen batez bestekoa apur bat hazi dela nabarmendu behar da: 2015ean jada adierazi zen 2013ko datuen aldean gehiago zirela, eta 2017an ere berriz ageri da (ikus [bilakaeraren datuak eranskinetako 20. irudian](#)).

2015eko datuetan, halaber, adierazi zen diru-sarrera gehien zituen agente taldea (1.000.000 eurotik gorakoak) apur bat handitu zela, 8 argitaletxe izatetik 11 izateraino, eta 2017an eutsi egin zaio kopuru horri. Hamaika argitaletxe horiek metatzen dute sektoreko salmenten ondoriozko diru-sarreraren % 80,0 baino gehiago eta, aurrez esan bezala, langileen batez bestekoa handitu dute: hori horrela, 2015ean 9,6 langile ziren agente bakoitzeko, eta 2017an, aldiz, 11,3 langile agente bakoitzeko.

4. irudia. Argitaletxeak, liburu-salmentagatiko diru-sarreraren eta langileen (urteko lanaldi osoko langileen baliokideak) arabera. 2017.






1.4. Liburu-dendak

2017an apur bat murriztu ziren liburu-dendak; izan ere, 2015ean 109 agente ziren, eta 2017an, aldiz, 97. Haien artetik, 19 denda-kateetakoak dira, eta 78 liburu-denda independentetzat hartzen dira. Ildo horretan, azpimarratu behar da independentetzat hartutako liburu-dendak murriztu direla (2015ean 90 ziren guztira). Hala, bada, sektoreko liburu-denden % 80,4 hartzen da independentetzat, eta % 19,6 dago kateren baten barruan. Pisu txikiagoa izan arren, sektoreko diru-sarreraren ia-ia erdiak (% 46,8) metatzen dituzte azken horiek, eta batez bestean gainerakoek baino langile gehiago dituzte (4,7 langile agente bakoitzeko, eta 2,1 langile agente bakoitzeko, aldiz, liburu-denda independentetek).

2017an, diru-sarrera mailaren arabera sailkapena 2013ko eta 2015eko zifretatik hurbil mantendu da. Aldaketa txiki batzuk hautematen dira diru-sarrera gehien eta gutxien dituzten liburu-dendetan, sektorean pisu apur bat handiagoa hartu baitute. Oraindik ere, milioi eurotik gorako diru-sarrerak dituzten 13 liburu-dendek biltzen dituzte liburu-salmentaren ondoriozko diru-sarreraren ia-ia erdiak. Adierazi behar da, halere, 250.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten liburutegietan apur bat hazi direla liburu-salmentaren ondoriozko diru-sarrerak: 2015ean % 13,1eko pisua zuten proportzioan, eta 2017an, aldiz, % 17,6koa (ikusitu datuak eranskineko [22. irudian](#)).


5. irudia. Liburu-dendak, tipologiaren, guztizko diru-sarreraren ehunekoaren eta langileen (urteko lanaldi osoko langileen baliokideak) arabera. 2017.



■ Kateetako partaide diren liburu-dendak ■ Liburu-denda independenteak



6. irudia. Liburu-dendak, diru-sarreraren bolumenaren eta liburu-salmentagatiko diru-sarreraren arabera. 2017.






1.5. Musika-programatzaileak

Estatistikaren edizio honetan, honela banatzen dira azterlanean zuzeneko musikaren programazioan aritzen diren agenteak: 71 programatzaile publiko (orkestrak barne, datuen konfidentzialtasunarekin lotutako kontuak direla eta), 28 sustatzaile pribatu eta 23 kontzertu-areto.

Analisian programatzaile publikoei (eta orkestrei) erreparatzen bazaie, ikusten da diru-sarreraren % 77,4 bereganatzen duela agenteen % 9,1ek (zazpi musika-programatzaile publikok). Aldiz, % 55,8k (43 agente programatzaile) guztizko diru-sarreraren % 5,8 biltzen du. Ikusleei dagokienez, banaketa ez da diru-sarrerena bezain desparekoa, baina oraindik ere aldeak daude: 250.000 eurotik gorako diru-sarrerak dituzten hamahiru agenteek ikusleen erdiak baino gehiago biltzen dituzte (ikusleen % 29,1 milioi eurotik gorako diru-sarrerak dituzten agenteek, eta % 37,1, berriz, 250.000 eta milioi euro arteko diru-sarrerak dituztenek).

Musika-programatzaile publikoak ikusleen arabera aztertzen badira, azaleratzen da gehienez 50.000 ikusle dituzten agenteen % 80,0k ikusleen % 44,4 biltzen duela; eta zazpi programatzaile publiko handiek (agenteen % 9,1, 50.000 ikusle baino gehiago dituztenak), berriz, guztizko ikusle kopuruaren % 55,5 biltzen dute.


7. irudia. Programatzaile publikoak, diru-sarrera tarteen, guztizko diru-sarreraren ehunekoaren eta ikusleen arabera. 2017.





Sustatzaile pribatuei dagokienez, ohar gaitzke aurreko edizioetako joerari eutsi eta gorantz ari dela: agenteen heren batek kontabilizatu zituen sortutako diru-sarrera ia-ia guztiak. Sustatzaile pribatuen % 31,6k diru-sarrera guztien % 94,1 bildu zituen.


8. irudia. Sustatzaile pribatuak, diru-sarreraren eta guztizko diru-sarreraren ehunekoaren arabera. 2017.



Kontzertu-aretoen esparruan ere joera bera nabarmendu daiteke, 2017an behera egin arren. 2015ean, diru-sarrera guztien % 70,3 lau aretotan metatu zen, eta 2017an, berriz, % 65,2. Tamaina txikiagoko aretoak sektoreko % 55,0 dira eta diru-sarrera guztien % 13,6 lortu zituzten. Ikusleei dagokienez zenbait aldaketa hauteman dira: diru-sarrera txikienak zituzten agenteek, 2015ean, ikusle guztien % 63,2 bildu zituzten, eta 2017an, aldiz, % 35,5era murriztu da portzentaje hori; hala ere, diru-sarrera handienak izan zituzten lau aretoek ikusleen % 25,8 bildu zuten 2015ean, eta 2017an % 47,6ra handitu da zifra hori (eranskineko [27. irudia](#)).



9. irudia. Kontzertu-aretoak, diru-sarreren eta guztizko ikusleen ehunekoen arabera. 2017.






1.6. Industria diskografikoa eta disko-saltokiak

Estatistikaren edizio honetan, 6 diskoetxek eta 17 disko-saltokik osatzen dute diskoaren industria. Diskoetxeei buruzko emaitza xeheak ez dira aztertu, datuen babesarekin lotutako arrazoiak direla eta.

Disko-saltokiei dagokienez, aurreko edizioetan aipatu bezala, kateetako agenteak dira nagusi, baina apur bat murriztu dira haien zifrak: 2017an sektorearen % 52,9 dira eta diru-sarreraren % 66,6 bereganatu dute. Enpleguen batez bestekoan ia-ia ez dago desberdintasunik kateetako saltokien eta saltoki independenteen artean: saltoki bakoitzeko 0,9 langile eta 1,0 langile dituzte, hurrenez hurren.

10. irudia. Disko-saltokiak, diru-sarreraren, guztizko diru-sarreraren ehunekoaren eta langileen (urteko lanaldi osoko langileen baliokideak) arabera. 2017.





1.7. Ikusizko arteen erakusketa-guneak

Arteen erakusketa-guneei buruz hitz egitean, kontuan hartu behar da edizio honetan batera bildu direla ikusizko arteen ekoizpen-guneen datuak eta erakusketa-gelen datuak (datuen babesarekin lotutako arrazoiak direla eta).


Ildo horretan, 2017an 19 arte-galeria eta 36 erakustareto sartu dira ikusizko arteen erakusketa-guneetan.

Aurreko datu-serieek aditzera eman bezala, sailkapena salmentaren ondoriozko diru-sarreraren zenbatekoaren arabera egiten bada, galerien sektorean saltoki txikiak dira nagusi: hain zuzen, galerien % 68,4 dira (100.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituztenak). Agente horiek enpleguaren % 44,6 hartzen dute, baina salmenten ondoriozko diru-sarreraren % 9,9 bakarrik. Agenteen % 31,6k (6 galeria) biltzen ditu diru-sarreraren bolumen handiena (% 90,1) eta langileen erdiak baino gehiago (% 55,4).


Erakustaretoen sareak ez du aldaketa handirik agertzen bere egiturari. Areto txikien multzoa (100.000 eurotik beherako aurrekontua dutenak) bere horretan mantendu da, eta sektoreko agenteen % 58,3 dira. Orotara 21 agente dira, eta diru-sarreraren % 10,4 eta langileen % 21,0 biltzen dituzte. Beraz, diru-sarrerak apur bat jaitsi dira, eta enpleguari eutsi diote, 2015ean nabarmen beheratu ondoren (ikusita emaitza xehatuak eranskineko [32. irudian](#)).



11. irudia. Galeriak, diru-sarrera tarteen, guztizko diru-sarreraren ehunekoaren eta langileen (urteko lanaldi osoko langileen baliokideak) arabera. 2017.



12. irudia. Ikusizko arteen erakusketa-guneak, diru-sarrera tarteen, guztizko diru-sarreraren ehunekoaren eta langileen (urteko lanaldi osoko langileen baliokideak) arabera. 2017.





1.8. Ikus-entzunezkoen industria


2017an, ikus-entzunezko 71 ekoiztetzek parte hartu dute estatistikan (2015ean baino 20 gutxiago), baina analisi honetan 70 aztertuko dira, EITB kanpoan utzita, pisu handia duelako eta sektorearen barruan berezia delako.

Datuei erreparatuz gero, aurreko urteetan agertu den joera bera nabarmentzen da: diru-sarrera guztien % 60,0 baino gehiago (2017an % 67,7) sektoreko agente gutxi batzuen eskuetan metatzen da (milioi eurotik gorako diru-sarrerak dituzten agenteak, % 17,1). Hamabi ekoiztetxe horiek biltzen dute, halaber, sektoreko enpleguaren erdia baino gehiago (2017an enpleguaren % 57,6). Ekoiztetxe handiak dira, enpresa bakoitzak batez beste dituen 29,3 langileek aditzera eman bezala (2015ean baino zifra handiagoak dira, orduan enpresa bakoitzak 25,7 langile baitzituen).

Nabarmendu behar da, orobat, 2015ean bezala, diru-sarrera gutxien dituzten ekoiztetxeek pisu handiagoa dutela sektorean. Izan ere, 100.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten ekoiztetxeak % 28,6 dira, eta ez dituzte guztizko diru-sarreraren % 1,3 eta langileen % 11,7 baino biltzen; 100.000 eta 250.000 euro arteko diru-sarrerak dituzten enpresek, berriz, diru-sarreraren % 9,5 eta langileen % 15,1 biltzen dituzte (ikus [ikusi emaitza xeheak eranskineko 33. irudian](#)).




13. irudia. Ekoiztetxeak, diru-sarrera tarteen, guztizko diru-sarreraren ehunekoaren eta langileen (urteko lanaldi osoko langileen baliokideak) arabera. 2017.



2017an zinema-aretoetako datuak bildu dira. Orain arte, ez ziren inoiz zenbatu estatistikan. Diru-sarreraren bolumen handiena duten agenteak gutxiengo dira sektorean, baina haiek ematen diete enplegua langile gehienei. Ildo horretan, agenteen % 14,8k (milioi eurotik gorako diru-sarrerak dituzten agenteak) zinema-aretoetako diru-sarrera guztien % 62,7 eta langile guztien % 54,2 biltzen ditu. Eta zinema-aretoen % 44,4an, aldiz, diru-sarreraren % 5,3 eta langileen % 7,1 metatzen da (ikus [ikusi emaitza xeheak eranskineko 34. irudian](#)).

14. irudia. Zinema-aretoak, diru-sarrera tarteen, guztizko diru-sarreraren ehunekoaren eta langileen (urteko lanaldi osoko langileen baliokideak) arabera. 2017.





**Kulturaren
Euskal Behatokia**
Observatorio Vasco
de la Cultura

II. TAULEN ERANSKINA



2.1. Arte eszenikoen ekoizleak

15. irudia. Arte eszenikoen ekoizleak, diru-sarreraren, guztizko diru-sarreraren ehunekoaren eta langileen (urteko lanaldi osoko langileen baliokideak) arabera. 2013-2017.

	2013					2015					2017				
	Agenteak		Diru-sarrerak	Langileak		Agenteak		Diru-sarrerak	Langileak		Agenteak		Diru-sarrerak	Langileak	
	Maizt.	%	%	%	Batez beste	Maizt.	%	%	%	Batez beste	Maizt.	%	%	%	Batez beste
500.000 € baino gehiago	7	10,4	52,2	24,0	5,9	7	9,2	49,4	26,0	7,6	10	10,9	59,9	28,4	8,1
250.001-500.000 €	5	7,5	13,4	13,6	4,7	7	9,2	18,8	16,8	4,9	10	10,9	18,8	19,1	5,5
100.000-250.000 €	13	19,4	20,5	31,8	4,2	12	15,8	14,6	21,0	3,6	10	10,9	8,6	16,6	4,8
100.000 baino gutxiago	42	62,7	13,9	30,6	1,3	50	65,8	17,2	36,1	1,5	62	67,4	12,7	35,9	1,7
Guztira	67	100,0	100,0	100,0	2,6	76	100,0	100,0	100,0	2,7	92	100,0	100,0	100,0	3,1

16. irudia. Arte eszenikoen ekoizleak, diru-sarreraren eta egindako ekoizpenen arabera. 2013-2017.

	2013				2015				2017			
	Agenteak		Egindako ekoizpenak		Agenteak		Egindako ekoizpenak		Agenteak		Egindako ekoizpenak	
	Maizt.	%	Maizt.	%	Maizt.	%	Maizt.	%	Maizt.	%	Maizt.	%
500.000 € baino gehiago	7	10,4	18	18,7	7	9,2	20	16,9	10	10,9	22	10,3
250.001-500.000 €	5	7,5	9	9,3	7	9,2	12	10,2	10	10,9	10	7,4
100.000-250.000 €	13	19,4	22	22,7	12	15,8	19	16,1	10	10,9	12	8,9
100.000 baino gutxiago	42	62,7	47	49,3	50	65,8	67	56,8	62	67,4	91	67,3
Guztira	67	100,0	96	100,0	76	100,0	118	100,0	92	100,0	135	100,0



2.2. Arte eszenikoetako programatzaileak

17. irudia. Arte eszenikoak programatzen dituzten aretoak, diru-sarreraren, guztizko diru-sarreraren ehunekoaren eta ikusleen arabera. 2013-2017.

	2013				2015				2017			
	Agenteak		Diru-sarrerak	Berez	Agenteak		Diru-sarrerak	Berez	Agenteak		Diru-sarrerak	Berez
	Maizt.	%	%	%	Maizt.	%	%	%	Maizt.	%	%	%
1.000.000 € baino gehiago	6	7,6	59,8	54,7	4	4,9	49,9	38,8	5	5,4	52,6	36,2
250.001-1.000.000 €	4	5,0	9,3	7,4	10	12,2	22,8	22,3	10	10,9	20,4	19,8
100.000-250.000 €	26	32,9	19,4	20,1	26	31,7	17,8	23,2	29	31,5	17,5	22,4
100.000 baino gutxiago	43	54,4	11,5	17,8	42	51,2	9,5	15,6	48	52,2	9,5	21,6
Guztira	79	100,0	100,0	100,0	82	100,0	100,0	100,0	92	100,0	100,0	100,0

18. irudia. Arte eszenikoak programatzen dituzten aretoak, bertaratutako ikusle-tarteen arabera. 2013-2017.

	2013		2015		2017	
	Maizt.	%	Maizt.	%	Maizt.	%
30.000 ikusle baino gehiago	6	7,6	5	6,1	6	6,5
10.001-30.000 ikusle	5	6,3	10	12,2	5	5,4
5.000-10.000 ikusle	17	21,5	13	15,9	21	22,8
5.000 ikusle baino gutxiago	51	64,6	54	65,9	60	65,2
Guztira	79	100,0	82	100,0	92	100,0



19. irudia. Arte eszenikoen jaialdiak, diru-sarrera tarteetan eta guztizko diru-sarreraren ehunekoaren arabera. 2013-2017.

	2013			2015			2017		
	Agenteak		Diru-sarrera k	Agenteak		Diru-sarrera k	Agenteak		Diru-sarrera k
	Maizt.	%	%	Maizt.	%	%	Maizt.	%	%
250.000 € baino gehiago	3	9,1	77,5	6	17,1	79,0	8	21,6	80,3
100.000-250.000 €	11	33,3	14,5	8	22,9	11,8	9	24,3	12,1
100.000 € baino gutxiago	19	57,6	7,9	21	60,0	9,3	20	54,1	7,5
Guztira	33	100,0	100,0	35	100,0	100,0	37	100,0	100,0



2.3. Argitaletxeak

20. irudia. Argitaletxeak, liburu-salmentagatiko diru-sarreraren eta langileen (urteko lanaldi osoko langileen baliokideak) arabera. 2013-2017.

	2013					2015					2017				
	Agenteak		Liburu-salmentagatiko diru-sarrerak	Langileak		Agenteak		Liburu-salmentagatiko diru-sarrerak	Langileak		Agenteak		Liburu-salmentagatiko diru-sarrerak	Langileak	
	Maizt.	%	%	%	Batez beste	Maizt.	%	%	%	Batez beste	Maizt.	%	%	%	Batez beste
1.000.000 € baino gehiago	8	21,1	75,5	52,4	8,3	11	26,2	86,3	62,8	9,6	11	30,6	86,1	71,6	11,3
500.001-1.000.000 €	6	15,8	15,6	20,9	4,4	4	9,5	7,7	11,7	4,9	3	8,3	8,0	7,8	4,5
250.001-500.000 €	3	7,8	4,1	7,5	3,1	2	4,8	2,0	4,2	3,5	1	2,8	1,2	3,5	6,0
100.000-250.000 €	7	18,4	2,6	10,9	2,0	4	9,5	1,6	4,6	1,9	4	11,1	2,0	3,4	1,5
100.000 € baino gutxiago	14	36,8	2,2	8,4	0,8	21	50,0	2,4	16,8	1,3	17	47,2	2,7	13,7	1,4
Guztira	38	100,0	100,0	100,0	3,3	42	100,0	100,0	100,0	4,0	36	100,0	100,0	100,0	4,8



2.4. Liburu-dendak

21. irudia. Liburu-dendak, tipologiaren, guztizko diru-sarreraren ehunekoaren eta langileen (urteko lanaldi osoko langileen baliokideak) arabera. 2013-2017.

	2013					2015					2017				
	Agenteak		Liburu-salmentagatiko diru-sarrerak	Langileak		Agenteak		Liburu-salmentagatiko diru-sarrerak	Langileak		Agenteak		Liburu-salmentagatiko diru-sarrerak	Langileak	
	Maizt.	%	%	%	Batez beste	Maizt.	%	%	%	Batez beste	Maizt.	%	%	%	Batez beste
Denda-kateetako liburu-dendak	26	27,1	58,3	45,2	4,6	19	17,4	49,1	36,4	5,8	19	19,6	46,8	35,9	4,7
Liburu-denda independenteak	70	72,9	41,7	54,8	2,1	90	82,6	50,9	63,6	2,1	78	80,4	53,2	64,1	2,1
Guztira	96	100,0	100,0	100,0	2,7	109	100,0	100,0	100,0	2,8	97	100,0	100,0	100,0	2,6

22. irudia. Liburu-dendak, diru-sarreraren eta liburu-salmentagatiko diru-sarreraren arabera. 2013-2017.

	2013			2015			2017		
	Agenteak		Liburu-salmentagatiko diru-sarrerak	Agenteak		Liburu-salmentagatiko diru-sarrerak	Agenteak		Liburu-salmentagatiko diru-sarrerak
	Maizt.	%	%	Maizt.	%	%	Maizt.	%	%
1.000.000 € baino gehiago	12	12,5	49,9	13	11,9	48,3	13	13,4	48,1
500.001-1.000.000 €	12	12,5	17,8	17	15,6	19,0	11	11,3	16,0
250.001-500.000 €	27	28,1	18,1	31	28,4	19,6	24	24,7	18,3
250.000 € baino gutxiago	45	46,9	14,2	48	44,0	13,1	49	50,5	17,6
Guztira	96	100,0	100,0	109	100,0	100,0	97	100,0	100,0



23. irudia. Liburu-dendak, diru-sarreraren eta liburu-denden tipologiaren arabera. 2013-2017.

	2013				2015				2017			
	Agenteak		Denda- kateetako liburu-dendak	Liburu- denda independen teak	Agenteak		Denda- kateetako liburu-dendak	Liburu- denda independen teak	Agenteak		Denda- kateetako liburu-dendak	Liburu-denda independen eak
	Maizt.	%	%	%	Maizt.	%	%	%	Maizt.	%	%	%
1.000.000 € baino gehiago	12	12,5	83,3	16,7	13	11,9	84,6	15,4	13	9,1	76,9	23,1
500.001-1.000.000 €	12	12,5	25,0	75,0	17	15,6	11,8	88,2	11	7,8	9,1	90,9
250.001-500.000 €	27	28,1	33,3	66,7	31	28,4	16,1	83,9	24	27,3	25,0	75,0
250.000 € baino gutxiago	45	46,9	8,9	91,1	48	44,0	2,1	97,9	49	55,8	4,1	95,9
Guztira	96	100,0	27,1	72,9	109	100,0	17,4	82,6	97	100,0	19,6	80,4



2.5. Musika-programatzaileak

24. irudia. Programatzaile publikoak, diru-sarrera tarteetan, guztizko diru-sarreraren ehunekoaren eta ikusleen arabera. 2013-2017.

	2013				2015				2017			
	Agenteak		Diru-sarrerak	Ikusleak	Agenteak		Diru-sarrerak	Ikusleak	Agenteak		Diru-sarrerak	Ikusleak
	Maizt.	%	%	%	Maizt.	%	%	%	Maizt.	%	%	%
1.000.000 € baino gehiago	5	7,0	52,5	28,3	5	7,2	53,8	28,6	7	9,1	77,4	29,1
250.001-1.000.000 €	7	9,9	16,6	37,9	6	8,7	15,2	37,0	6	7,8	6,8	37,1
100.000-250.000 €	18	25,4	20,0	20,9	20	29,0	20,0	24,7	21	27,3	10,0	19,1
100.000 € baino gutxiago	41	57,7	11,0	12,9	38	55,1	11,1	9,7	43	55,8	5,8	14,7
Guztira	71	100,0	100,0	100,0	69	100,0	100,0	100,0	77	100,0	100,0	100,0

25. irudia. Programatzaile publikoak, ikusleen arabera eta guztizko ikusleen ehunekoaren arabera. 2013-2017.

	2013			2015			2017		
	Agenteak		Ikusleak	Agenteak		Ikusleak	Agenteak		Ikusleak
	Maizt.	%	%	Maizt.	%	%	Maizt.	%	%
100.000 ikusle baino gehiago	3	4,2	41,4	2	2,9	38,3	3	3,9	39,7
50.001-100.000 ikusle	4	5,6	19,9	4	5,8	23,8	4	5,2	15,8
10.001-50.000 ikusle	20	28,2	27,0	17	24,6	26,0	21	27,3	30,5
5.000-10.000 ikusle	10	14,1	4,9	11	15,9	5,6	22	28,6	9,4
5.000 ikusle baino gutxiago	34	47,9	6,7	35	50,7	6,2	27	35,1	4,5
Guztira	71	100,0	100,0	69	100,0	100,0	77	100,0	100,0



26. irudia. Sustatzaile pribatuak, diru-sarreraren eta guztizko diru-sarreraren ehunekoaren arabera. 2013-2017.

	2013			2015			2017		
	Agenteak		Diru-sarrerak	Agenteak		Diru-sarrerak	Agenteak		Diru-sarrerak
	Maizt.	%	Maizt.	Maizt.	%	%	Maizt.	%	%
900.000 € baino gehiago	4	14,3	76,3	6	28,6	87,5	6	31,6	94,1
100.000-900.000 €	13	46,4	20,8	10	47,6	12,0	7	36,8	5,4
100.000 € baino gutxiago	11	39,3	2,9	5	23,8	0,5	6	31,6	0,5
Guztira	28	100,0	100,0	21	100,0	100,0	19	100,0	100,0

27. irudia. Kontzertu-aretoak, diru-sarreraren eta guztizko ikusleen ehunekoaren arabera. 2013-2017.

	2013				2015				2017			
	Agenteak		Diru-sarrerak	Ikusleak	Agenteak		Diru-sarrerak	Ikusleak	Agenteak		Diru-sarrerak	Ikusleak
	Maizt.	%	%	%	Maizt.	%	%	%	Maizt.	%	%	%
250.000 € baino gehiago	5	21,7	60,2	44,9	4	21,1	70,3	25,8	4	20,0	65,2	47,6
100.000-250.000 €	7	30,4	32,1	33,7	4	21,1	14,4	11,0	5	25,0	21,2	17,0
100.000 € baino gutxiago	11	47,8	7,7	21,4	11	57,9	15,3	63,2	11	55,0	13,6	35,5
Guztira	23	100,0	100,0	100,0	19	100,0	100,0	100,0	20	100,0	100,0	100,0



28. irudia. Kontzertu-aretoak, ikusle-tarteen eta guztizko ikusleen ehunekoen arabera. 2013-2017.

	2013			2015			2017		
	Agenteak		Ikusleak	Agenteak		Ikusleak	Agenteak		Ikusleak
	Maizt.	%	%	Maizt.	%	%	Maizt.	%	%
10.000 ikusle baino gehiago	7	30,4	67,6	10	52,6	86,0	11	55,0	81,7
5.000-10.000 ikusle	4	17,4	16,8	5	26,3	10,8	7	35,0	16,5
5.000 ikusle baino gutxiago	12	52,2	15,6	4	21,1	3,2	2	10,0	1,8
Guztira	23	100,0	100,0	19	100,0	100,0	97	100,0	100,0



2.6. Disko-saltokiak

29. irudia. Disko-saltokiak, diru-sarreraren, guztizko diru-sarreraren ehunekoaren eta langileen (urteko lanaldi osoko langileen baliokideak) arabera. 2013-2017.

	2013					2015					2017				
	Agenteak		Diru-sarrerak	Langileak		Agenteak		Diru-sarrerak	Langileak		Agenteak		Diru-sarrerak	Langileak	
	Maizt.	%	%	%	Batez beste	Maizt.	%	%	%	Batez beste	Maizt.	%	%	%	Batez beste
Denda-kateetako saltokiak	13	61,9	75,5	67,8	1,5	11	55,0	76,2	54,3	1,0	9	52,9	66,6	48,5	0,9
Saltoki independenteak	8	38,1	24,5	32,2	1,2	9	45,0	23,8	45,7	1,1	8	47,1	33,4	51,5	1,0
Guztira	21	100,0	100,0	100,0	1,4	20	100,0	100,0	100,0	1,1	17	100,0	100,0	100,0	0,9

30. irudia. Disko-saltokiak, diru-sarreraren tartearen eta saltoki-tipologiaren arabera. 2013-2017.

	2013				2015				2017			
	Agenteak		Denda-kateetako saltokiak	Independenteak	Agenteak		Denda-kateetako saltokiak	Independenteak	Agenteak		Denda-kateetako saltokiak	Independenteak
	Maizt.	%	%	%	Maizt.	%	%	%	Maizt.	%	%	%
100.000 € baino gehiago	8	38,1	75,0	25,0	7	35,0	71,4	28,6	5	29,4	40,0	60,0
100.000 € baino gutxiago	13	61,9	53,8	46,2	13	65,0	46,2	53,8	12	70,6	58,3	41,7
Guztira	21	100,0	61,9	38,1	20	100,0	55,0	45,0	17	100,0	52,9	47,1



2.7. Ikusizko arteen erakusketa-guneak

31. irudia. Galeriak, diru-sarrera tarteen, guztizko diru-sarreraren ehunekoaren eta langileen (urteko lanaldi osoko langileen baliokideak) arabera. 2013-2017.

	2013					2015					2017				
	Agenteak		Salmentengatiko diru-sarrerak	Langileak		Agenteak		Salmentengatiko diru-sarrerak	Langileak		Agenteak		Salmentengatiko diru-sarrerak	Langileak	
	Maizt.	%	%	%	Batez beste	Maizt.	%	%	%	Batez beste	Maizt.	%	%	%	Batez beste
100.000 € baino gehiago	5	23,8	67,1	36,9	2,3	5	27,8	77,7	44,1	2,6	6	31,6	90,1	55,4	3,2
100.000 € baino gutxiago	16	76,2	32,9	63,1	1,2	13	72,2	22,3	55,9	1,3	13	68,4	9,9	44,6	1,2
Guztira	21	100,0	100,0	100,0	1,5	18	100,0	100,0	100,0	1,6	19	100,0	100,0	100,0	1,8

32. irudia. Ikusizko arteen erakusketa-guneak, diru-sarrera tarteen, guztizko diru-sarreraren ehunekoaren eta langileen (urteko lanaldi osoko langileen baliokideak) arabera. 2013-2017.

	2013					2015					2017				
	Agenteak		Diru-sarrerak	Langileak		Agenteak		Diru-sarrerak	Langileak		Agenteak		Diru-sarrerak	Langileak	
	Maizt.	%	%	%	Batez beste	Maizt.	%	%	%	Batez beste	Maizt.	%	%	%	Batez beste
100.000 € baino gehiago	7	18,4	87,5	55,2	2,8	10	33,3	84,9	80,0	2,6	15	41,7	89,6	79,0	3,2
100.000 € baino gutxiago	31	81,6	12,5	44,8	0,5	20	66,7	15,1	20,0	0,3	21	58,3	10,4	21,0	0,6
Guztira	38	100,0	100,0	100,0	0,9	30	100,0	100,0	100,0	1,1	36	100,0	100,0	100,0	1,7



2.8. Ikus-entzunezkoen industria

33. irudia. Ekoiztetxeak, diru-sarrera tarteetan, guztizko diru-sarreraren ehunekoaren eta langileen (urteko lanaldi osoko langileen baliokideak) arabera. 2013-2017.

	2013					2015					2017				
	Agenteak		Diru-sarrerak	Langileak		Agenteak		Diru-sarrerak	Langileak		Agenteak		Diru-sarrerak	Langileak	
	Maizt.	%	%	%	Batez beste	Maizt.	%	%	%	Batez beste	Maizt.	%	%	%	Batez beste
1.000.000 € baino gehiago	10	13,5	58,9	56,4	32,9	13	14,4	62,2	51,3	25,7	12	17,1	67,7	57,6	29,3
500.001-1.000.000 €	10	13,5	18,1	14,3	8,4	11	12,2	17,5	11,5	6,8	9	12,9	15,9	9,5	6,4
250.001-500.000 €	12	16,2	10,3	11,9	5,8	9	10,0	5,9	14,2	10,3	7	10,0	5,5	6,2	5,4
100.000-250.000 €	22	29,7	10,3	11,9	3,2	30	33,3	12,2	13,9	3,0	22	31,4	9,5	15,1	4,2
100.000 € baino gutxiago	20	27,0	2,5	5,6	1,6	27	30,0	2,3	9,1	2,2	20	28,6	1,3	11,7	3,6
Guztira	74	100,0	100,0	100,0	7,9	90	100,0	100,0	100,0	7,2	70	100,0	100,0	100,0	8,7

Oharra: EITBren datuak ez dira kontuan hartu.



34. irudia. Zinema-aretoak, diru-sarrera tarteen, guztizko diru-sarreraren ehunekoaren eta langileen (urteko lanaldi osoko langileen baliokideak) arabera. 2017.

	2017				
	Agenteak		Diru-sarrerak	Langileak	
	Maizt	%	%	%	Batez beste
1.000.000 € baino gehiago	8	14,8	62,7	54,2	13,4
250.001-1.000.000 €	9	16,7	22,6	27,4	6,0
100.000-250.000 €	13	24,1	9,4	11,3	1,7
100.000 € baino gutxiago	24	44,4	5,3	7,1	0,6
Guztira	54	100,0	100,0	100,0	3,7